- *The Act of Killing,* Joshua Oppenheimer (Danimarka - Norvegia - Britainia Handia, 2012)
- *The Attack (El atentado),* Ziad Doueiri (Líbano - Frantzia - Qatar - Belgika, 2012)
- *Asier ETA biok,* Aitor Merino, Amaia Merino (Espainia - Ekuador, 2013)
- *Heli,* Amat Escalante (Mexiko, 2013)
- *Maidan,* Sergei Loznitsa (Ukrainia - Herbehereak, 2014)
- *Lasa eta Zabala,* Pablo Malo (Espainia, 2014)
- *The Look of Silence,* Joshua Oppenheimer (Danimarka - Indonesia - Norvegia - Finlandia - AEB - Erresuma Batua - Israel - Frantzia - Alemania - Herbehereak, 2014)
- *1980,* Iñaki Arteta (Espainia, 2014)
- *Je suis Charlie,* Daniel Leconte, Emmanuel Leconte (Frantzia, 2015)
- *Mugaminak,* Xuban Intxausti (Espainia, 2016)

Epaimahaiak

Epaimahai Ofiziala

Sail Ofizialeko Epaimahaiak sei sari ematen ditu nahitaez: film onenaren Urrezko Maskorra, zuzendaritza onenaren Zilarrezko Maskorra, emakumezko aktore onenaren Zilarrezko Maskorra, gizonezko aktore onenaren Zilarrezko Maskorra, gidoi onenaren Epaimahaiaren saria eta argazkilaritza onenaren Epaimahaiaren saria. Horrez gain, Epaimahaiaren sari berezia ere eslei dezake.

Bille August, zuzendaria, Danimarka (Presidentea)

Anahí Berneri, gidoigilea eta zuzendaria, Argentina

Bina Daigeler, jantziteria-diseinatzailea, Alemania

Esther García, ekoizlea, Espainia

Jia Zhang-ke, zuzendaria, gidoilaria eta ekoizlea, Txina

Matthew Libatique, fotografia-zuzendaria, Estatu Batuak

Nadia Turincev, ekoizlea, Errusia

Kutxabank-Zuzendari Berriak sariaren epaimahaia

Carlo Chatrian, Locarnoko Zinema Jaialdiko zuzendaria, Italia (Presidentea)

Pablo Álvarez, zuzendaria, Txile

Victória Guerra, aktorea, Portugal

Eulàlia Iglesias Huix, kazetaria eta kritikaria, Espainia

Isabel Stevens, idazlea eta arte-komisarioa, Erresuma Batua

Zabaltegi-Tabakalera sariaren epaimahaia

Virginia García del Pino, zuzendaria, Espainia (Presidentea)

Corinne Castel, komisarioa eta ekoizlea, Frantzia

Federico Veiroj, gidoigilea, zuzendaria eta ekoizlea, Uruguai

Horizontes Sariaren epaimahaia

Inma Cuesta, aktorea, Espainia (Presidentea)

Andrés Di Tella, zinemagilea, Argentina

Shari Frilot, Sundance zinema-jaialdiko programatzailea, Estatu Batuak

Euskal Zinemaren Irizar sariaren epaimahaia

Anjel Lertxundi, idazlea eta gidoigilea, Espainia (Presidentea)

Maite Arroitajauregi, musikagilea eta interpretatzailea, Espainia

Jon Garaño, zuzendaria, Espainia

Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroaren sariaren epaimahaia

Julie Bergeron, Marché du Film - Canneseko Zinema Jaialdiko industria- programako zuzendaria, Kanada

Simón de Santiago Aréizaga, ekoizlea, Espainia

Alejandra Paulín Albor, Los Cabos zinema-jaialdiko koordinatzaile nagusia, Mexiko

TVE-Beste Begirada sariaren epaimahaia

Toni Sevilla, TVEko edukien, kanalen eta programen produkzioko zuzendaria, Espainia (Presidentea)

Bárbara Goenaga, aktorea, Espainia

Clara Montero, Azkuna Zentroko programazio-arduraduna, Espainia

Inma Shara, orkestra zuzendaria eta musikagilea, Espainia

Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketen epaimahaia

Joao Pedro Rodrigues, zuzendaria, Portugal (Presidentea), Topaketan parte hartzen duten eskola bakoitzeko ikasle batekin batera.

Espainiako Lankidetza sariaren epaimahaia

Rubén López-Pulido, AECIDeko komunikazio-zuzendaria, Espainia (Presidentea)

Lur Olaizola, Tabakalera-Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroko ikus-entzunezko programen koordinatzailea, Espainia

Xabier Paya, Donostia / San Sebastián 2016 Europako Kultur Hiriburuko kultur programaren zuzendaria, Espainia

Irabazleen zerrenda

FIAPFen sari ofizialak

Film onenaren Urrezko Maskorra
Wo Bu Shi Pan Jinlian / I Am Not Madame Bovary
Xiaogang Feng (Txina)

Epaimahaiaren Sari Berezia, ex aequo
El Invierno
Emiliano Torres (Argentina - Frantzia)

Jätten / The Giant
Johannes Nyholm (Suedia - Danimarka)

Zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra
Hong Sang-soo
Dangsinjasingwa dangsinui geot / Yourself and Yours
Hong Sang-soo (Hego Korea)

Emakumezko aktore onenaren Zilarrezko Maskorra
Fan Bingbing
Wo Bu Shi Pan Jinlian / I Am Not Madame Bovary
Xiaogang Feng (Txina)

Gizonezko aktore onenaren Zilarrezko Maskorra
Eduard Fernández
El hombre de las mil caras
Alberto Rodríguez (Espainia)

Gidoi onenaren epaimahaiaren saria
Isabel Peña, Rodrigo Sorogoyen
Que Dios nos perdone
Rodrigo Sorogoyen (Espainia)

Argazkilaritza onenaren epaimahaiaren saria
Ramiro Civita
El Invierno
Emiliano Torres (Argentina - Frantzia)

Beste sari ofizial batzuk

Kutxabank-Zuzendari Berriak saria

Sariaren irabazleak 50.000 euro jasoko ditu, zuzendariarentzat eta Espainian filma banatuko duen etxearentzat, erdi bana.

Park
Sofia Exarchou (Grezia - Polonia)

AIPAMEN BEREZIA
Compte tes blessures / A Taste Of Ink
Morgan Simon (Frantzia)

Horizontes Latinos Saria

35.000 eurorekin hornitua: 10.000 euro filmaren zuzendariarentzat eta 25.000 euro filmaren Espainiako banatzailearentzat. Sariak Latinoamerikako zinemagintza bultzatzea du helburu, bai eta plataforma ezin hobea izatea ere film horiek Europako merkatuan erakusteko eta merkaturatzeko.

Rara
Pepa San Martín (Txile - Argentina)

AIPAMEN BEREZIA
Alba
Ana Cristina Barragán (Ekuador - Mexiko - Grezia)

Zabaltegi-Tabakalera saria

20.000 eurorekin hornitua: 6.000 euro filmaren zuzendariarentzat eta 14.000 euro filmaren banatzailearentzat.

Eat That Question: Frank Zappa In His Own Words
Thorsten Schüte (Frantzia - Alemania)

AIPAMEN BEREZIA
La Disco Resplandece (Film laburra)
Chema García Ibarra (Turkia)

Donostia/San Sebastián 2016, Europako Kultur Hiriburua Saria

Perlak saileko film bakoitzaren lehen proiekzio publikora agertzen diren ikusleek emandako saria. Publikoaren sariak bi errekonozimendu egiten ditu: Film Onenaren saria, 50.000 eurokoa, eta Europako Film Onenaren saria, 20.000 eurokoa.

FILM ONENAREN SARIA
I, Daniel Blake
Ken Loach (Erresuma Batua - Frantzia - Belgika)

EUROPAKO FILMAREN SARIA
Ma vie de courgette / My Life As A Courgette
Claude Barras (Suitza - Frantzia)

Euskal Zinemaren Irizar saria

Pedaló
Juan Palacios (Espainia)

Gazteriaren EROSKI saria

Bar Bahar / In Between
Maysaloun Hamoud (Israel - Frantzia)

Europa-Latinoamerika V. Koprodukzio Foroa saria

EUROPA-LATINOAMERIKA V. KOPRODUKZIO FOROKO PROIEKTURIK ONENAREN SARIA

7:35am
Javier Van de Couter (Argentina)

AIPAMEN BEREZIA

Hogar
Maura Delpero (Italia - Argentina)

EUROPA-LATINOAMERIKA KOPRODUKZIO FOROAREN EFAD/CACI SARIA

Los días según ellos
Juan Pablo Félix (Argentina - Espainia - Frantzia)

ARTE INTERNATIONAL PRIZE

Hogar
Maura Delpero (Italia - Argentina)

Zinema Eraikitzen 30 sariak

INDUSTRIAREN ZINEMA ERAIKITZEN 30 SARIA

La educación del Rey
Santiago Esteves (Argentina)

CACI/IBERMEDIA TV ZINEMA ERAIKITZEN SARIA

La educación del Rey
Santiago Esteves (Argentina)

Zinema Ikasleen Nazioarteko XV. Topaketaren saria

PANAVISION SARIA

Étage X / Floor X
Francy Fabritz (Alemania)
DFFB - Berlin Film Conservatory (Alemania)

PANAVISION SARIA. IZENEZKO AIPAMENA

Umpire
Leonardo Van Dijl (Belgika)
LUCA School of Arts (Belgika)

ORONA SARIA

24° 51' Latitud Norte
Carlos Lenin Treviño (Mexiko)
Zinema Ikasketen Unibertsitate Zentroa CUEC-UNAM (Mexiko)

ORONA SARIA. IZENEZKO AIPAMEN BEREZIA

A Quien Corresponda
Valeria Fernández (Argentina)
Zinema Unibertsitatea (Argentina)

Beste sari batzuk

TVE-Beste Begirada saria

Bar Bahar / In Between
Maysaloun Hamoud (Israel - Frantzia)

Espainiako Lankidetza saria

Oscuro Animal
Felipe Guerrero (Kolonbia - Argentina - Herbehereak - Alemania - Grezia)

AIPAMEN BEREZIA
Viejo Calavera
Kiro Russo (Bolivia-Qatar)

AIPAMEN BEREZIA
Era O Hotel Cambridge (Hotel Cambridge)
Eliane Caffé (Brasil - Frantzia - Espainia)

Tokyo Gohan saria

Tokyo Gohan saria. Stylejam-ek eta Pictures dept. Co. Ltd.-k aukeratutako epaimahai batek 10.000 euroz hornitutako sari bat ematen dio Culinary Zinemako filmetako bati, filmaren nazioarteko banatzailearentzat.

Theater of Life
Peter Svatek (Kanada)

Sari paraleloak

FIPRESCI saria

Lady Macbeth
William Oldroyd (Erresuma Batua)

CICAE saria

Bar Bahar / In Between
Maysaloun Hamoud (Israel - Frantzia)

FEROZ Zinemaldia saria

El hombre de las mil caras
Alberto Rodríguez (Espainia)

Euskal gidoi onenaren saria

Nueva York. Bosgarren Solairua (Nueva York. Quinta Planta)
Mikel Rueda

Lurra Greenpeace saria

L'Odyssée / The Odyssey
Jérôme Salle (Frantzia - Belgika)

Signis saria

Nocturama
Bertrand Bonello (Frantzia - Alemania - Belgika)

AIPAMEN BEREZIA
A Monster Calls
J.A. Bayona (Espainia)

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen Elkartasunaren saria

La fille de Brest / 150 Milligrams
Emmanuelle Bercot (Frantzia)

Sebastiane saria

Bar Bahar / In Between
Maysaloun Hamoud (Israel - Frantzia)

Ohorezko sariak

Donostia Saria

Ethan Hawke, aktorea, idazlea eta zuzendaria (Estatu Batuak)

> *Niretzat, neronek aukeratutako eliza da zinema, eta instituzio sakratuak dira honelako zinema-jaialdiak. Zinemaren indarrarekiko fedea, maitasuna eta itxaropena berresteko gaude hemen*
>
> Ethan Hawke

Donostia Saria

Sigourney Weaver, aktorea (Estatu Batuak)

Sigourney Weaver

“Sari honek esanahi handia du niretzat. Zenbaitek jakingo duzuenez, bisitatu nuen lehen zinema-jaialdia izan zen (Donostiakoa), 1979an, “Alien” izeneko film txiki batekin, eta gau hartara arte ikusi gabe neukan filma.”

Sigourney Weaver

Zinema Latinoaren Jaeger-LeCoultre saria

Gael García Bernal, aktorea, zuzendaria eta produktorea (Mexiko)

Zinemira saria

Ramón Barea, aktorea eta zuzendaria (Espainia)



Ramón Barea

“Mila esker, bihotz-bihotzez, sari honengatik. Niretzat esanahi berezia du; izan ere, Donostian egin nuen nire lehen sartu-irtena. Hemengo alfonbra gorrian jakin nuen zinema egin nezakeela, eta serio hartu nuen.”

Ramón Barea

Gael García Bernal

“Oso harro nago. Oso ondo dago Latinoamerikako zinemarako foku bat egotea.”

Gael García Bernal

Industria

The Industry Club

The Industry Club-ek, Zinemaldiko Industria Departamentuak, zenbait tresna eta jarduera jarri ditu industriako akreditatuen eta hautatutako filmen taldeen esku, profesionalek baldintza onenetan gauzatu ahal izan dezaten beren lana, eta Donostiako egonaldia ahal bezain pozgarria gerta dakien.

Guztira, industriako 1.569 profesional bertaratu ziren 64. Zinemaldira, 60 herrialdetako 1.060 enpresaren ordezkari. Horrek esan nahi du % 4,8 goratu zela 2015ekoaren aldean, eta etengabe hazi dela 2010etik, % 59 hazi ere.

Zinemaldiak iraun duen bederatzi egunetan proiektuen aurkezpenak eta produkzio-fase desberdinetan ziren filmen emanaldiak antolatu dira, baita topaketak, bilerak eta mahai-inguruak ere, guztia koprodukzioak sustatzeko, baita Zinemaldiko sailetan aurkeztutako filmak eta ikus-entzunezko proiektuak bultzatzeko ere.

Bi jarduera profesional garrantzitsuenak, Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa eta Zinema Eraikitzen saila, Europako eta Latinoamerikako zinematografietan interesa duen nazioarteko industriarentzako topagune izan dira. Nabarmentzekoa da, aurtengo berritasun gisa, EFADs-CACIren Europa Latinoamerika Koprodukzio Foroa Saria, EFADsek (Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkartea) eta CACIk (Iberoamerikako Zinematografiako Agintarien Konferentzia) emandakoa: 20.000 euroko dirusaria hartzen du barne, V. Koprodukzio Foroan hautatutako proiektuetako baten ekoizle gehiagodunarentzat.

> *Guztira, industriako 1.569 profesional bertaratu ziren 64. Zinemaldira, 60 herrialdetako 1.060 enpresaren ordezkari. Horrek esan nahi du % 4,8 goratu zela 2015ekoaren aldean, eta etengabe hazi dela 2010etik, % 59 hazi ere.*

Bigarren urtez jarraian, aurten ere Europa Creativa Mediarekin eta Donostia / San Sebastián 2016 Europako Kultur Hiriburuarekin batera antolatu da *Audiences in Motion: Listening to the User* jardunaldia, European Film Forumen esparruan.

Aldi berean, eta Zinemaldi osoan zehar, Industry Clubak gune bat izan du Kursaalen, akreditatuen arteko bilerak errazteko, baita zenbait areto ere, aurkezpenak, profesionalen arteko bilerak, mahai-inguruak eta IBAIAk (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartea) antolatutako *Lau Haizetara* Dokumentalen XII. Koprodukzio Foroaren moduko beste jarduera batzuk egiteko. Gune horretan bertan dago, halaber, Zinemaldiaren Bideoteka, non Zinemaldirako programatutako filmak ikusi ahal izan baitira.

Edizio honetan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren eta Europa Creativa Mediaren funtsezko babesa izan du berriz Industry Clubek.

Europa-Latinoamerika V. Koprodukzio Foroa

Koprodukzio Foroa garatzen ari diren proiektuak aurkezteko plataforma bat da, aurretiazko deialdi eta hautaketa baten ostean, aurkezpen publikoak (*pitching*) eta *one to one* bilerak biltzen ditu, aukeratutako proiektuen ordezkarien eta interesa duten profesionalen artean. Edizio honetan, akreditatutako profesionalek Europa eta Latinoamerikako 17 proiektuen aukera ezagutu ahal izan dute bertatik bertara; gehienak, argitaratu gabeak.

San Telmo Museoko Klaustroa *networking*-erako gune gisa prestatu zen, industriako akreditatuek profesionalen arteko harremanak bideratzen dituen *matchmakers* taldearekin bilerak hitzartu ahal izateko. Gune horretan, gosariak, bazkariak eta *Happy Hour* direlakoak eskaini zizkieten bertaratutakoei.

Era berean, ekitaldien aretoan mahai-inguruak eta aurkezpenak egin ziren. Horietan, profesionalek esperientziak trukatu zituzten, baita intereseko auziak jorratu ere, hala nola ikus-entzunezkoen azken joerak, koprodukzioak, banaketa eta negozio-eredu berriak.



Aukeratutako proiektuak

Koprodukzio-foroan, 28 herrialdetako 194 proiektuk eman zuten izena. Zinemaldiaren Hautaketa Batzordeak hamasei proiektu aukeratu zituen, nazioarteko hiru adituk eginiko txostenak kontuan hartuta: Javier Martín, Manuel Pérez Estremera eta Andrea Stavenhagen. Horrez gain, Erdialdeko Amerikako eta Karibeko proiektu zinematografikoak garatzeko tailerreko proiektu batek Foroan parte hartu zuen (saria irabazteko aukerarik gabe), Zinemaldiak Ibermedia programarekin sinatutako hitzarmenari esker.

- *7:35am,* Javier Van de Couter
  Ekoiztetxea: Varsovia Film SRL (Argentina)
- *A dos grados del otoño,* Patricio Suarez Quiroga
  Ekoiztetxea: El Dedo en el Ojo (Espainia - Argentina)
- *Azor,* Andreas Fontana
  Ekoiztetxea: Alina Film (Suitza - Argentina)
- *Barba ensopada de sangue,* Aly Muritiba
  Ekoiztetxea: RT Features (Brasil)
- *Estrada para Livramento,* Giuliana Monteiro
  Ekoiztetxea: Elefanti Films (Brasil)
- *Hogar,* Maura Delpero
  Ekoiztetxea: Dispàrte (Italia - Argentina)
- *Iniciales SG,* Rania Attieh & Daniel Garcia
  Ekoiztetxea: Frutacine (Argentina)
- *Irene,* Celina Murga
  Ekoiztetxea: Cepa Audiovisual (Argentina)
- *La civil,* Teodora Ana Mihai
  Ekoiztetxea: One for the Road BVBA (Belgika - Mexiko - Errumania)
- *La mami,* Laura Herrero Garvín
  Ekoiztetxea: Cacerola Films S.A. (Mexiko)
- *Los días según ellos (LDSE),* Juan Pablo Felix
  Ekoiztetxea: Bikini Films (Argentina - Espainia - Frantzia)
- *Panza de burro,* Rosario García-Montero, Daniel Vega, Diego Vega, Joanna Lombardi, Gianfranco Quatrinni, Javier Fuentes-León
  Ekoiztetxea: Maretazo Cine (Peru)
- *Perro negro,* George Walker Torres
  Ekoiztetxea: Cine Cercano C.A. (Venezuela - Frantzia - Brasil)
- *Suicidios telefónicos,* Sandra Gugliotta
  Ekoiztetxea: Ojoblindado SRL (Argentina)
- *Una periodista,* Alejandro Fernández Almendras
  Ekoiztetxea: Parox S.A. (Txile)
- *Vendrá la muerte y tendrá tus ojos,* José Luis Torres Leiva
  Ekoiztetxea: Globo Rojo Producciones (Txile)

IBERMEDIA PROIEKTUA (SARIA LORTZEKO LEHIAZ KANPO)

- *Las hijas de Alonso,* Kattia González Zúñiga
  Ekoiztetxea: Ceibita Films (Costa Rica - Txile - Panama)

Sariak

EUROPA-LATINOAMERIKA KOPRODUKZIO FOROKO PROIEKTURIK ONENAREN SARIA

10.000 euro gordineko saria ekoizle gehiagodunarentzat.

- *7:35 AM,* Javier Van de Couter, Varsovia Films ekoiztetxearena (Argentina)

AIPAMEN BEREZIA:

Hogar, Maura Delpero, Dispàrte ekoiztetxearena (Italia - Argentina)

EFADs-CACIREN EUROPA-LATINOAMERIKA KOPRODUKZIO FOROKO SARIA

20.000 euroko saria ekoizle gehiagodunarentzat.

- *Los días según ellos*, Juan Pablo Félix, Utópica Cine ekoiztetxearena (Argentina - Espainia - Frantzia)

EUROPA-LATINOAMERIKA KOPRODUKZIO FOROA. ARTE INTERNATIONAL PRIZE

5.000 euroko saria ekoizle gehiagodunarentzat.

- *Hogar*, Maura Delpero, Dispàrte ekoiztetxearena (Italia - Argentina)

Focus on Nordic Glocal

Donostia Zinemaldiak **Focus on Nordic Glocal** sustatu du aurten, V. Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroaren barruan. Danimarka, Islandia eta Norvegiako produktorez osatutako ordezkaritza bat Donostian izan zen, Zinemaldia zuzenean ezagutzeko, kontaktu profesionalak egiteko eta bai Koprodukzio Foroan bai Industry Club sailak antolatutako gainontzeko jardueretan parte hartzeko.

Focus jarduera abiarazi aurretik, Glocal Cinemas Sarea sortu zen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntzaz, 2017an Industriako jarduera berri bat sortzeko abiapuntu gisa. **Glocal in Progress** ekimenak muin jakin bat izango du ardatz: postprodukzio-fasean dauden hizkuntza ez hegemonikoetako Europako film sorta bat ematea, filmak amaitzen eta nazioartean zabaltzen lagundu dezaketen produktorez, banatzailez, salmenta-agentez edo programatzailez osatutako audientzia baten aurrean.

Aurkezpenak eta mahai-inguruak

AURKEZPENA

Sørfond: Norvegiaren eta Hegoaldearen arteko koprodukziorako laguntza.

Hizlariak: Dag Asbjornsen, Norwegian Film Institute (Norvegia); eta Benedikte Danielsen, Norwegian MEDIA Desk (Norvegia).

MAHAI-INGURUA

Urrearen sukarra edo nola izan dezakete film independenteek azkenean VoD plataformetan "urre" pixka bat lortzeko esperantza?
Europa Distributionek bultzatuta.

Moderatzaile: Michael Gubbins, Sampo Media (Erresuma Batua).

Hizlariak: Alexandra Poch, EUIPO (Espainia); Kobi Shely, DISTRIFY MEDIA (Israel); Quentin Carbonell, MUBI (Erresuma Batua); Anna Harding, FOLKETS BIO (Suedia); eta Emmanuel Joly, European Commission - CREATIVE EUROPE MEDIA (Belgika).

MAHAI-INGURUA

Talentu digitala: sortzaile berriak, kanal berriak, publiko berriak.
PROAk (Productores Audiovisuales Federados de Cataluña) sustatua.

Moderatzaile: David Matamoros, ZENTROPA SPAIN (Espainia).

Hizlariak: Pau Brunet, LA PANDA PRODUCTIONS (AEB); María Zamora, AVALON (Espainia); Antonio Saura, LATIDO FILMS (Espainia); Imanol Uribe, AIETE ARIANE FILMS (Espainia); eta Juan Carlos Tous, FILMIN (Espainia).

MAHAI-INGURUA

Branding & Marketing zinematografikoa. Zure pelikularentzat balio gehigarria sortzeko tresnak.

Moderatzailea: Elena Neira, LA OTRA PANTALLA (Espainia).

Hizlariak: Eduardo Escudero, A CONTRACORRIENTE FILMS (Espainia); Luis Ángel Ramírez, IMVAL (Espainia); Paula Gastaud, SOFA DIGITAL (Brasil); eta Sandro Fiorín, FIGA FILMS (AEB).

MAHAI-INGURUA

Zinezko afera. Europa eta Latinoamerika arteko koprodukzioei bultzada.

Moderatzaile: Gerardo Michelin, LATAM CINEMA (Uruguai).

Hizlariak: Elena Vilardell, IBERMEDIA (Espainia); Julie-Jeanne Régnault CNC (EFADs-en ordezkari, Frantzia); Manoel Rangel, ANCINE (CACIren ordezkari, Frantsesa); eta Sergio García, EURIMAGES (Frantzia).

MAHAI-INGURUA

Europa eta Latinoamerika arteko koprodukzioak.
Hiru kasu praktiko.
AECIDek (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia) bultzatuta.

Moderatzailea: Fernanda del Nido, Setembro Cine (Espainia).

Hizlariak:

- *Aquí no ha pasado nada*
  Alejandro Fernández Almendras (Txile) eta Augusto Matte, Jirafa (Txile).
- *Ejercicios de memoria*
  Paz Encina (Paraguai); Constanza Sanz Palacios (Argentina); Paulo Roberto de Carvalho, AUTENTIKA FILMS (Alemania); Claire Gadéa eta Marie-Pierre Macia, MPM FILM (Frantzia).
- *Era o Hotel Cambridge*
  Elianne Caffé eta André Montenegro, AURORA FILMES (Brasil); Edgard Tenenbaum, TU VAS VOIR (Frantzia); eta Jorge Moreno, NEPHILIM Producciones (Espainia).

Zinema Eraikitzen 30

Zinema Eraikitzen Donostia Zinemaldiak eta Cinélatino-Rencontres de Toulousek elkarrekin antolatutako ekimena da, eta urtean bi edizio izaten ditu. Ekimenaren helburua honako hau da: postprodukzio-fasean zailtasunak dituzten Latinoamerikako ekoizpeneko film luzeak bukatzen laguntzea. Aurten sei film aukeratu zituzten bi zinema-jaialdietako batzordeek. Filmok profesionalez osaturiko audientzia baten aurrean aurkeztu zituzten, amaitzeko eta nazioartean banatzeko laguntza eskain zezaten.



Hautatutako filmak:

- *Un gran dragón,* Jaime Osorio Márquez (Kolonbia)
- *La familia,* Gustavo Rondón (Venezuela - Txile - Norvegia)
- *Las olas,* Adrián Biniez (Uruguai - Argentina)
- *La educación del Rey,* Santiago Esteves (Argentina)
- *El silencio del viento,* Álvaro Aponte Centeno (Puerto Rico - Dominikar Errepublika - Frantzia)
- *Medea,* Alexandra Latishev Salazar (Costa Rica - Txile)

Sariak

INDUSTRIAREN ZINEMA ERAIKITZEN 30 SARIA

Daniel Goldstein, Deluxe Spain, Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Video, Nephilim Producciones, No Problem Sonido eta Wanda Vision enpresak film baten postprodukzioaz arduratuko dira –ingelesez azpititulatutako DCP (Digital Cinema Package) kopia egin arte–, eta, horretaz gain, filma Espainian banatuko dute.

La educación del rey, Santiago Esteves zuzendariarena eta 13 CONEJOS etxeak (Argentina) ekoitzia.

CACI/IBERMEDIA TELEVISIÓN ZINEMA ERAIKITZEN SARIA

Bigarren urtez jarraian eman da, Industriaren Zinema Eraikitzen saria irabazi duen filmarentzat. Iberoamerikako Zinematografiako Agintarien Konferentziak (CACI) ematen du saria, Ibermedia Programaren bitartez. Hain zuzen, filma telebistan zabaltzeko Laguntza Programan sartzean datza saria: Ibermedia TVn eta Ibermedia Digitalen berau modu ez esklusiboan igortzeko baimena, 25.000 USDren balioagatik.

La educación del rey, Santiago Esteves zuzendariarena eta 13 CONEJOS etxeak (Argentina) ekoitzia.

European Film Forum - Audiences In Motion

Listening to the User

156
PARTE-HARTZAILE

Audiences in Motion-ek bigarren edizioa bete zuen 64. Donostia Zinemaldian. Aurten *Audiences in Motion: Listening to the User* izenburupean egin da, eta aro digitaleko ikus-entzunezko edukien ekoizpenean, banaketan eta emanaldian publikoak zer funtsezko zeregin duen aztertzen jarraitu du ekitaldiak.

Jardunaldia, Donostia Zinemaldiak eta Europa Creativa MEDIAk elkarrekin eta Donostia / San Sebastián 2016 Europako Kultur Hiriburuaren lankidetzarekin antolatua, European Film Forumaren esparruan kokatzen da. Europako Batzordeak sortu zuen plataforma hori, Batzordearen eta ikus-entzunezko sektoreko eragileen arteko elkarrizketa egituratuari bide eman nahian, eta iraultza digitalak sortutako erronkei eta aukerei heltzeko politika estrategikoak garatzea du helburu.

Audiences in Motion, Listening to the User ekitaldian publikoaren parte-hartzeari buruzko kasu praktikoak aurkeztu ziren, baita datuen analisiaren bidezko sare sozialen kudeaketari buruzko adibideak ere, eta elkarrizketa digitalaren ardatz-gunean kokatu ziren horiek.

Jardunaldia bi paneletan egituratu zen, LA OTRA PANTALLAko (Espainia) Elena Neira zela moderatzaile. Hitzaurrea, aldiz, EUROPAKO BATZORDEAREN EUROPA CREATIVA MEDIAKO Martin Dawsonek eta AVALONeko (Espainia) Stefan Schmitzek aurkeztu zuten.

1. panela

Audientzien parte-hartzea

Hizlariak: Marianne Furevold, NRK (Norvegia); Fernando López Puig, TVE (Espainia); Camille Lopato, DIVERSION (Frantzia).

2. panela

Banaketa: Europako ikus-entzuleak ulertzea

Hizlariak: Felipe Pontón, TELEFÓNICA-MOVISTAR+ (Espainia); Arturo Guillén, COMSCORE (AEB); eta Tania Sutherland, MUBI (AEB).

Jardunaldiaren ondorioak EUROPAKO BATZORDEAREN EUROPA CREATIVA MEDIAko Dag Asbjornsenek formulatu zituen (Belgika).

Lau Haizetara - Dokumentalen XII. Koprodukzio Foroa

Lau Haizetara Dokumentalen XII. Koprodukzio Foroa IBAIAk (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartea) bultzatzen du, The Industry Clubekin elkarlanean. Helburu nagusia sektoreko profesionalei elkargune bat eskaintzea da, Europako eskualdeetako ekoizleen artean koprodukzio-harremanak sor daitezen.

Jardunaldia honela egituratu zen: goizean, hautatutako proiektuen aurkezpen-saio bat, Europako Commissioning Editors panelaren aurrean, eta arratsaldean hitzaldi bat, non Ove Rishøj Jensenek (European Documentary Networkeko film-aholkularia) jardunbide egokien adibideak aurkeztu baitzituen, azken dokumental arrakastatsuak banatzeko eta merkaturatzeko estrategien alorrean.

Commissioning editors taldea Europako hainbat telebistak eta banatzailek osatu zuten: Aintzane Pérez del Palomar, EITB (Espainia); Andrés Luque, TVE (Espainia); Anne Charbonnel, ARTE FRANCE (Frantzia); Claudia Schreiner, ARD / MITTELDEUTSCHER RUNDFUNK (Alemania); Elena Mera Dios, TREELINE DISTRIBUTION(Espainia); Iñigo Trojaola, Movistar+ (Espainia); Jordi Ambrós Hortensi, TV3 (Espainia); Mohammed Belhaj, ALJAZEERA DOCUMENTARY CHANNEL (Qatar); Pentti Väliahdet, YLE (Finlandia).

73
PARTE-HARTZAILE

Aukeratutako proiektuak

- *Amal,* Liliana Torres eta Sofi Escudé
  Boogaloo Fims (Espainia)
- *Degenerando Argentina,* Isabelle Solas
  Dublin Films (Frantzia)
- *El amanecer del gallo,* Antonio Díaz Huerta
  Marmoka Films - Frida Films (Espainia)
- *Experimento Stuka,* Rafa Molés eta Pepe Andreu
  Suica Films - Parabellum Films -
  REC Grabaketa Estudioa, S.L. (Espainia)
- *Goodbye Jerusalem,* Gabrielle Laurent eta Mariette Auvray
  Les Films du Tambour de Soie (Frantzia)
- *Impulso,* Emilio Belmonte
  Les Films de La Butte (Frantzia)
- *Live of Marzouk,* Ernesto Pagano
  Ladok - Alva Film - Dublin Films (Frantzia)
- *Probation* (Fipa - Festival International De Programmes Audiovisuels), Belisario Franca Giros (Brasil)
- *Neighbors,* Tomislav Zaja
  Gral Films (Kroazia)
- *Strip And War,* Andrei Kutsila
  Studio Sonica - Andrei Kutsila (Polonia)
- *Tesoros Abandonados,* Josu Venero
  Signo Digital (Espainia)
- *Transición (There Is No Alternative),* Víctor Luengo Del Alma
  Salon Indien Films (Espainia)

Beste hainbat bilera, aurkezpen eta ekitaldi profesional

- Aurkezpena - *Kanariak: Europako abantaila fiskal onenak.*
- Film laburren elkarteak: *Urteko balantzea eta 2016-2017rako helburuak.*
- EFADs (Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkartea) - CACI (Iberoamerikako Zinematografiako Agintarien Konferentzia) lantaldearen bilera.
- Ibermedia Programa - CACIren (Iberoamerikako Zinematografiako Agintarien Konferentzia) Aholku Kontseilua.
- Donostia Film Commission*. Donostian filmatzeko aukerak*.
- Hispasat - Tailerra: *Zinema eta Teknologia tailerra: 4K-n filmatzearen erronkak.*
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Elkargi, Triodos Bank eta CREA SGR - *Ikus-entzunezko sektorearen zerbitzurako finantzaketa*.
- FAPAE - Mahai-ingurua: *Situation of the Cinema Industry in Europe.*
- Aurkezpena - *Filmarket Hub*: *Gidoien eta koprodukzioen online merkatua*.
- ARRI - Zinemako filmaketetarako ekipamendu berrien aurkezpena.

Zinemaldiaren bideoteka

103
FILM ESKURAGARRI
(2015EAN, 91)

823
IKUSKETA
ZINEMALDIAK IRAUN
DITUEN 9 EGUNETAN
(2015EAN, 653)

2.063
IKUSKETA GUZTIRA
(2015EAN, 1.804)

Zinemaldiaren bideotekak online-plataforma bat jartzen du industriako akreditatuen esku (Cinando VLrekin lankidetzan), inskribatutako filmak *streaming* bidez ikusi ahal izateko hasi Zinemaldiaren lehen egunetik, eta hura amaitu eta hilabetera bitartean.

Honako film hauek inskribatu ziren Bideotekan:

- Zinemaldian hautatutako film luzeak (59 film eskuragarri).
- Espainiako filmak (3) eta Latinoamerikako filmak (5), beren katalogoan urteko filmak sartu dituzten ekoizpen-etxeenak, aurretik tasa ordainduta.
- Salmenta-agenteek beren katalogoko beste film bat (urtekoa) inskribatu ahal izan dute plataforma honetan inskribatutako film hautatu bakoitzeko (27 film).
- Koprodukzio Foroko zuzendarien aurreko lanak (5) eta Zinema Eraikitzen saileko zuzendarien aurreko lanak (2).
- Koprodukzio Foroko aurreko edizioetan izan ziren filmak (2).

Honako film hauek izan dira aldi horretan gehien ikusi direnak:



Zinemaldia 32 irudietan

Eduard Fernández, gizonezko aktore onenaren Zilarrezko Maskorra, Zinemaldiaren liburua sinatzen.

Ethan Hawke *The Magnificent Seven* filmeko ikusleak agurtzen.

The Industry Clubeko bilerak.

Ilarak Kursaal ondoan, Zinemaldiaren jauregian.

Ken Watanabe aktorea, amaierako galaren alfonbra gorrian.

Ángela Molina, Espainiako Zinematografia saria ospatzen, San Telmo Museoan.

J.A. Bayona Sigourney Weaverri Donostia Saria emateko zain, *A Monster Calls* filmaren aurkezpenean.

Fan Bingbing aktorea, inaugurazio-galaren alfonbra gorrian.

Richard Gere eta Alejandra Silva, *Time Out of Mind* filmaren emanaldi osteko solasaldian.

*Bigas x Bigas*eko lantaldea: Javier Bardem produktorea, Aitana Sánchez-Gijón, Jordi Mollá eta Leonor Watling aktoreak, eta Bigas Lunaren alarguna, Celia Oros.

Isabelle Huppert eta Paul Verhoeven, *Elle* filmaren aurkezpenean, Victoria Eugenia antzokian.

Bertrand Tavernier eta Jean Becker, Jacques Beckerri eskainitako atzera begirakoa azaltzen.

Cynthia Nixon eta Terence Davies *A Quiet Passion* filmaren aurkezpenean, Tabakaleran.

Hugh Grant bere zaleekin *selfie* bat ateratzen María Cristina Hotelera iristean.

Monica Bellucci aktoreak hedabideei erantzuten die.

Zinemaldiko zuzendari José Luis Rebordinos eta Golemeko arduradun Otilio García, uztailean hildako Josetxo Morenori omenaldian.

Bertrand Bonello zinegilearen *masterclass*a Zinema Ikasleen Nazioarteko XV. Topaketan.

Rodrigo Sorogoyen eta Isabel Peña, gidoi onenaren epaimahaiaren saria jaso ostean, *Que Dios nos perdone* filmagatik.

Horizontes Latinoseko Epaimahaiko presidentea, Inma Cuesta, *Rara* filmaren zuzendari Pepa San Martíni saria banatzen.

Sigourney Weaver aktorea, Aquariumeko terrazako *photocall*ean.

Joseph Gordon-Levitt, Shailene Woodley eta Oliver Stone, *Snowden* filmaren emanaldia eta gero.

Haurrentzako zinema-saioa Belodromoan.

Ewan McGregor eta Jennifer Connelly, *American Pastoral* filmaren prentsaurrekoan.

Julio Medem publikoa agurtzen, *Kalebegiak* filmaren estreinaldian, Belodromoan.

Emmanuelle Bercot eta Sidse Babett Knudsen, inaugurazio-filmaren zuzendaria eta protagonista.

Pablo Larraín eta Gael García Bernal, *Neruda*ren prentsaurrekoa baino lehen egindako argazki-saioan.

El hombre de las mil caras filmeko lantaldea, Alberto Rodríguez buruan.

François Ozon zinemagilea eta Paula Beer aktorea, *Frantz* filmaren aurkezpenean.

*La reconquista*ren zuzendaritza eta antzeztaldea berriz elkartu zen Rafa Berrio musikariarekin.



Hirokazu Koreeda eta Kirin Kiki, *Umi yorimo mada fukaku /After the storm* filmaren emanaldia baino lehen, Victoria Eugenian.

Félix Viscarret, *Vientos de La Habana* sailaren zuzendaria, eta haren protagonistak, Mariam Hernández, Jorge Perugorría eta Juana Acosta.

L'Odyssée-ko zuzendaria eta antzezleak, hiriko Aquariumera egin zuten bisitan.